ACTA DE LA SESIÓN DEL CONSEJO RECTOR DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL DE SANTURTZI

7 DE MARZO DE 2016

En la Sala de Sesiones de la casa consistorial del Ayuntamiento de Santurtzi, siendo las nueve horas y cincuenta y cinco minutos del día de la fecha antes indicada, previa convocatoria al efecto realizada por el Sr. Presidente, se reúne en sesión extraordinaria el Consejo Rector del organismo autónomo con la siguiente composición:

Presidente: D. Danel Bringas Egilior.

Vocales asistentes:

- D. Itsazain Ortolatxipi Ibáñez. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos.
- Da. Cristina Senarriaga Rojo. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos.
- D. Jonatan Sánchez Fernández. Grupo Sí Se Puede Santurtzi.
- D. Endika García Saez. Grupo Municipal Bildu.
- D. D. Pedro Miguel Lucena Balda. Grupo Municipal Socialista.
- D. Luis Ángel Urdiales Villanueva. Grupo Municipal Popular.

Directora: Dª. Cristina García Pérez.

Interventor: D. José Miguel Paredes Cisneros.

Secretario Delegado: José Fernando García Pañeda.

El Sr. Presidente abre la sesión para tratar los asuntos incluidos en el orden del día de la convocatoria.

1º. INFORMACIÓN SOBRE EL PROYECTO DE PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO 2016 DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL DE SANTURTZI.

Toma la palabra el Sr. Presidente para señalar los aspectos más destacables del proyecto de Presupuesto del organismo autónomo para el ejercicio 2016, conforme a la documentación previamente remitida a los/as miembros del Consejo.

El Sr. Urdiales Villanueva pregunta si al estar vacante el puesto de Dirección se han reducido los costes de personal, ya que no se ha procedido a proveer el puesto con una contratación nueva

La Sra. Directora indica que sí se ha contratado a una persona, pero para sustituir las clases que ella estaba impartiendo hasta su nombramiento.

El Sr. Lucena Balda pregunta si la reducción en los ingresos de un 10 por ciento se ha calculado tomando como base la ejecución del presupuesto anterior.

El Sr. Presidente indica que así es, según el número de matriculaciones realizadas en el curso.

El Sr. Lucena Balda pregunta por qué existe un incremento del 6% en el capítulo I si, por el contrario, se prevé una reducción de las matriculaciones de un 10%.

El Sr. Presidente señala que además de la contratación de un/a profesor/a para cubrir las clases que venía atendiendo la Directora también se ha tenido que contratar otra persona para las que atendía el Secretario Académico, y está previsto además atender con un puesto nuevo las funciones de impulso de nuevas tecnologías.

El Sr. Lucena Balda señala que para el personal eventual se ha fijado la misma subida que en el personal eventual del CIFO y pregunta cómo se ha calculado.

El Sr. Interventor afirma que se deberá a los nuevos contratos de sustitución, más el 1% previsto de incremento general.

Pregunta el Sr. Lucena Balda por el concepto de trabajos externos, y por qué se ha incrementado notablemente

El Sr. Presidente indica que es la partida correspondiente a la limpieza de locales, y es lo que se ha asignado por tal concepto.

El Sr. Sánchez Fernández expresa que en cuanto a mantenimiento y reparaciones en la sesión anterior del Consejo se indicaron una serie de deficiencias existentes en el edificio, y pregunta si la cuantía fijada alcanza para todo lo necesario, incluidas algunas demandas de reparaciones realizadas por el profesorado.

El Sr. Presidente indica que no cree que alcance para todo lo deseable, porque además siempre surgen imprevistos y urgencias que se hace preciso atender.

La Sra. Directora añade que sólo las averías de la caldera y del cuadro eléctrico ya descuadrarán todo el presupuesto.

El Sr. Sánchez Fernández indica que se solicitó una solución a los problemas de las ventanas en el edificio y no parece que se haya previsto. En la anterior sesión se dijo que ya se había encargado una solución a dicho problema, y pregunta si está contemplada en los 20.000 euros de la partida de reparaciones o si ya está hecho.

El Sr. Presidente responde que le consta que se han hecho varias de las reparaciones solicitadas, pero no sabe en ese momento si está todo solucionado o faltan todavía algunas cosas, y se puede consultar a la Sra. Arquitecta técnica de Cultura en tal sentido.

El Sr. Sánchez Fernández pregunta si es suficiente la partida de 500 euros para atender la formación del personal.

La Sra. Directora indica que con ello se llega sólo para paliar la deficiencia en tal sentido, pero teniendo en cuenta que antes no había nada, al menos cree que alcanza para pagar las matrículas de los cursillos, y no han de costearse el propio profesorado el coste de los cursos como hasta ahora.

Por último, pregunta el Sr. Sánchez Fernández que en la partida de publicidad tanto en 2015 como en el nuevo presupuesto no hay dotación alguna, y si no hace falta ninguna publicidad sobre los servicios del Euskaltegi, como podría ser por ejemplo un buzoneo con la oferta educativa de la institución.

El Sr. Presidente indica que la publicidad se está realizando con medios propios, ya que a lo largo de los últimos años estas partidas se han ido reduciendo paulatinamente.

No produciéndose ulteriores intervenciones al respecto, el Consejo Rector se da por enterado del presente asunto.

2º. PROPUESTA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO 2016 DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL DE SANTURTZI.

El Sr. Presidente procede a dirigir la votación del acuerdo indicado en el punto del orden del día:

El Consejo Rector, por mayoría de sus miembros, con los votos a favor del Sr. Presidente y de la representación del grupo Nacionalistas Vascos (tres votos), con la abstención de las representaciones de los grupos Socialistas Vascos, Bildu y Popular (tres votos) y con el voto en contra del representante del grupo Sí Se Puede Santurtzi (un voto) acuerda aprobar el proyecto de Presupuesto para el ejercicio 2016 del organismo autónomo local Euskaltegi Municipal.

3º. PROPUESTA, DICTAMEN Y REMISIÓN AL ÁREA DE CULTURA Y EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE LA PLANTILLA DE PERSONAL Y DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL.

Toma la palabra el Sr. Presidente para señalar los aspectos más destacables de los documentos presupuestarios de plantilla de personal y relación de puestos de trabajo del organismo autónomo para el ejercicio 2016.

- El Sr. Urdiales Villanueva pregunta si se han contemplado las modificaciones y cambios realizados anteriormente.
- El Sr. Presidente responde afirmativamente, si bien los cambios de momento tienen carácter transitorio.
- El Sr. Lucena Balda recuerda que está pendiente de envío un informe con la justificación legal de los nombramientos realizados en comisión de servicio.
- El Sr. Sánchez Fernández pregunta cómo se han realizado las contrataciones de personal sustituto a que antes se ha hecho referencia.
- El Sr. Presidente informa que se han realizado a través de la bolsa de trabajo existente.

Pregunta asimismo el Sr. Sánchez Fernández si se han consultado los cambios en la relación de puestos de trabajo con la representación sindical.

El Sr. Presidente indica que se ha producido una situación peculiar en este sentido, puesto que la representante del personal del Euskaltegi era la Sra. García Pérez, que ha sido nombrada para la Dirección del organismo autónomo al mismo tiempo que se elaboraban las propuestas de presupuesto y relación de puestos y plantilla, por lo que no se ha realizado formalmente.

La Sra. Directora añade que, no obstante, todos los cambios se han realizado previo acuerdo con la práctica totalidad del personal del Euskaltegi, por lo que hay un acuerdo directo en estos temas.

No habiendo ulteriores intervenciones al respecto, el Sr. Presidente procede a dirigir la votación del acuerdo indicado en el punto del orden del día:

El Consejo Rector, por mayoría de sus miembros, con los votos a favor del Sr. Presidente y de la representación del grupo Nacionalistas Vascos (tres votos) y con la

abstención de las representaciones de los grupos Sí Se Puede Santurtzi, Bildu, Socialistas Vascos y Popular (cuatro votos), acuerda aprobar el proyecto de plantilla de personal y de la relación de puestos de trabajo del organismo autónomo local Euskaltegi Municipal.

No habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Presidente da por concluida la sesión siendo las diez horas y veinte minutos del día señalado en el encabezamiento. De todo lo cual, como Secretario Delegado de este órgano doy fe.

No Bo

EL PRESIDENTE DE LA JUNTA RECTORA,

SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUKO SAIOAREN AKTA

2016ko MARTXOAREN 7a

Santurtziko udaletxearen batzorde-aretoan, arestian aipatutako eguneko bederatziak eta berrogeita hamabost minutu direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, Presidente jaunak aldez aurretik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn., Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea Jonatan Sánchez Fernández jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea Pedro Miguel Lucena Balda jn., Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea Luis Angel Urdiales Villanueva jn., PP Udal Taldea

Zuzendaria: Cristina García Pérez and.

Kontu-hartzaile eskuordetua: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak saioari hasiera eman dio eta deialdiaren gai zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1.- SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAREN 2016KO AURREKONTUAREN PROIEKTUARI **BURUZKO INFORMAZIOA**

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta autonomiadun erakundeak 2016rako egin duen aurrekontuaren proiektuan dauden alderdi azpimarragarrienak aipatu ditu, kontseiluko kideei aldez aurretik bidalitako informazioarekin bat eginez.

Urdiales Villanueva jaunak galdetu du ea zuzendari lanpostua hutsik dagoenez pertsonal-gastuak jaitsi diren, ez baita inor kontratatu lanpostu horretan aritzeko.

Zuzendari andreak ez direla jaitsi erantzun dio, bere ordez aritzeko langile bat kontratatu delako, orain arte berak ematen zituen eskolak emateko hain zuzen.

Lucena Balda jaunak galdetu du ea diru-sarreren %10eko jaitsiera kalkulatzeko aurreko aurrekontuan gastatutako zenbatekoan oinarritu diren.

Kontseiluburu jaunak baietz erantzun dio, ikasturtean izandako matrikulazioaren arabera egin dela.

Lucena Balda jaunak galdetu du ea zergatik dagoen %6ko igoera I. kapituluan, baldin eta matrikulazioan %10eko jaitsiera aurreikusten bada.

Kontseiluburu jaunak erantzun dio esanez zuzendari andreak orain arte eman dituen klaseak emateko irakasle bat ez ezik, beste langile bat ere kontratatu behar izan dela Idazkari Akademikoak ematen zituen klaseak emateko eta gainera, lanpostu berri bat sortzea aurreikusten dela teknologia berrien inguruan aritzeko, hau da, teknologia berriak euskaltegiko jardueran txertatzeko.

Lucena Balda jaunak esan du behin-behineko langileei eta HLHZko behin-behineko langileei igoera bera ezarri zaiela, eta galdetu du ea nola kalkulatu den.

Kontu-hartzaile jaunak esan du kalkulua ordezkapenak egiteko kontratu berriak gehi igoera orokor gisa aurreikusitako %1 izango dela.

Lucena Balda jaunak kanpoko lanen kontzeptuari buruz galdetu du. Jakin nahi du ea zergatik igo den hainbeste.

Kontseiluburu jaunak erantzun dio esanez kontu-sail hori lokalen garbiketari dagokiola, eta kontzeptu horren pean adierazitako kopurua ezarri dela.

Sánchez Fernández jaunak esan du aurreko kontseiluan mantenu eta konponketez ere jardun zutela eta hartan eraikinean gabeziak zeudela aipatu zela. Hortaz, galdetu du ea ezarritako zenbatekoa nahikoa den egin beharreko guztia gehi irakasleek eskatutako konponketetako batzuk egiteko.

Kontseiluburu jaunak esan dio ez duela uste nahi den guztia egiteko diru nahikoa egongo denik, beti ezustekoak sortzen direlako, unean konpondu beharreko bat-bateko kontuak.

Zuzendari andreak gaineratu du galdera eta panel elektrikoaren matxurak konpontzeko erabiliko den zenbatekoak hankaz gora jarriko duela aurrekontu osoa.

Sánchez Fernández jaunak adierazi du konponbide bat eskatu zuela eraikinaren leihoek dituzten arazoak konpontzeko eta ez dirudiela kontuan hartu denik. Aurreko saioan

aipatu zenaren arabera, arazo horretarako dagoeneko konponbide bat topatu da eta galdetu du ea konponketetarako den kontu-saileko 20.000 euroetan dagoen sartuta ala dagoeneko eginda dagoen.

Kontseiluburu jaunak erantzun dio esanez jakin badakiela eskatutako zenbait konponketa burutu egin direla baina ez dakiela une horretan dena konponduta dagoen ala oraindik zerbait falta den. Baina edonola ere, Kultura arloko arkitekto teknikoari galde dakiokeela.

Sánchez Fernández jaunak galdetu du ea 500 euroko kontu-saila nahikoa den langileen prestakuntza ordaintzeko.

Zuzendari andreak esan du horrekin ezer gutxi egin daitekeela, baina kontuan izanda lehen ezer ez zegoela, gutxienez orain ikastaroen matrikulak ordaintzeko helduko dela uste duela eta ez orain arte bezala, irakasleak berak ordaindu behar zituela ikastaroak.

Azkenik, Sánchez Fernández jaunak publizitaterako kontu-sailaz galdetu du, bai 2015ean eta bai 2016ko aurrekontuan ez dagoelako horretarako zuzkidurarik eta galdetu du ea ez den publizitaterik behar euskaltegiko zerbitzuak ezagutzera emateko, adibidez erakundearen eskaintza akademikoa postontzietan banatu.

Kontseiluburu jaunak esan dio publizitatea bertako bitartekoen bidez egiten ari dela, azken urteotan kontu-sail horiek jaitsiz joan direlako poliki-poliki.

Beste parte-hartzerik egon ez denez, Artezkaritza Kontseiluak gaia jorratutzat eman du.

2.- SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAREN AURREKONTUAREN PROPOSAMENA AURKEZTU ETA ONARTZEA 2016 URTERAKO, HALA BADAGOKIO

Kontseiluburu jaunak gai-zerrendan adierazitako erabakiaren inguruko bozketari ekin dio.

Kontseiluburu jaunak eta Eusko Abertzale taldearen ordezkariek aldeko botoa eman dute (hiru boto), Bildu, Euskal Sozialistak eta Popular Udal Taldeetako ordezkariek abstentzioa agertu dute (hiru boto) eta Sí Se Puede Santurtzi udal taldeko ordezkariak aurka bozkatu du (boto bat). Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Santurtziko Udal Euskaltegia Autonomiadun Erakundearen aurrekontuaren proposamena onartzea 2016 urterako.

3.- SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIAREN LANGILE-PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN PROIEKTUA AURKEZTU, EBATZI ETA KULTURA ETA EUSKARA ARLORA IGORTZEA.

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta autonomiadun erakundeko langileen plantillari eta lanpostuen zerrendari buruzko aurrekontuen agirietako alderdirik azpimarragarrienak nabarmendu ditu.

Urdiales Villanueva jaunak galdetu du ea kontuan hartu diren lehenago egindako aldaketak.

Kontseiluburu jaunak baietz erantzun dio, nahiz eta aldaketak, momentuz, behinbehinekoak diren.

Lucena Balda jaunak gogorarazi du oraindik ez dela zerbitzu-eginkizunetan izendatutako karguen justifikazio legalari buruzko txostena igorri.

Sánchez Fernández jaunak galdetu du ea nola egin diren arestian aipatu diren ordezko langileen kontratazioak.

Kontseiluburu jaunak jakinarazi dio euskaltegian lan-poltsa zegoela eta horri jarraituz egin direla.

Sánchez Fernández jaunak galdetu du ea lanpostuen zerrendan izandako aldaketak sindikatuetako ordezkariekin kontsultatu den.

Kontseiluburu jaunak erantzun dio esanez oso egoera bitxia gertatu dela, orain arte euskaltegiko langileen ordezkaria García Pérez andrea zelako, hau da, autonomiadun erakundearen zuzendaritzarako izendatu den langile bera. Horrela bada, aipatutako kargu aldaketa eta lanpostuen zerrenda eta langileen plantillaren proposamenak aldi berean egin direnez, ez da modu formalean kontsultarik egin.

Hala ere, zuzendari andreak garbi utzi du egindako aldaketa guztiak euskaltegiko ia plantilla osoaren oniritziarekin egin dela, eta beraz, gai hauen inguruan adostasun zuzena dagoela.

Beste parte hartzerik egon ez denez, kontseiluburu jaunak gai-zerrendan adierazitako erabakiaren inguruko bozketari ekin dio:

Kontseiluburu jaunak eta Eusko Abertzale taldearen ordezkariek aldeko botoa eman

dute (hiru boto), Sí Se Puede, Bildu, Euskal Sozialistak eta Popular Udal Taldeetako ordezkariek, berriz, abstentzioa agertu dute (lau boto). Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Santurtziko Udal Euskaltegiko langileen-plantilla eta lanpostuen zerrendari buruzko proiektua onartzea.

Jorratzeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean, hamarrak eta hogei direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE

ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PRESIDENTEA